# la perfumería de Mercadona

2016KO GABONAK




**EDERTZEKO OPARIAK**
aurtengo Gabonetan liluragarri ibiltzeko

## *glam* Gabonak

IKUS EZAZU MAKILLAJE-BILDUMA BERRIA


glam
deliplus
COLOR
Decoraciones
para uñas
glam
EFECTO
GEL
PASO 1º DE 2
10 mL℮
TOP COAT
EFECTO
GEL
PASO 2º DE 2
10 mL℮
glam
deliplus
1.
2.
3.

1. Azazkaletarako DEKORAZIOAK
2. Azazkal-LAKAK
3. Gorputzeko hauts ARGITZAILEA
4. Glitter ezpain-BALTSAMOA
5. Iraupen luzeko begi-ARKATZA
6. EZPAINETAKO barra
7. ITZAL-paleta
8. Iraupen luzeko begi-ITZALAK




***EDIZIO MUGATUA***


Gabonetan...
gehiegikeriak
konpentsatzen lagunduko dizugu
6 SOBRES
BATIDO
SABORVAINILLA
Sustitutivo de una comida
para control del peso
con edulcorante
1 SOBRE = 1 COMIDA
Deliplus
6 SOBRES
BATIDO
SABORCHOCOLATE
Sustitutivo de una comida
para control del peso
con edulcorante
1 SOBRE = 1 COMIDA
Deliplus
6 SOBRES
NATILLA
SABORCHOCOLATE
con pepitas de chocolate
Sustitutivo de una comida
para control del peso
con azúcar y edulcorante
1 SOBRE = 1 COMIDA
Deliplus
Deliplus






# AURKIBIDEA

**06 Gabonetarako edertasun-gida**
Aurpegiko larruazala elikatzeko eta sakon garbitzeko formula eta testura berri batzuk, azala beti mimatzen dutenak, eta Tez Perfecta lerroa, aurpegi leun eta akats txikirik gabea izateko. Apain-mahaian eduki behar duzun guztia aurtengo Gabonetan eder-eder egoteko.

**13 Urrearen sukarra**
Urre-kolorea izango da nagusi Gabonetan. Perfumeak eta kosmetikoak dotore-dotore izango dira, jaiak ospatzeko. Gehi itzazu desioen zerrendara!

**14 Glam Gabonak**
Gabon-gaueko afarian, Eguberri-eguneko bazkarian, Urtezahar-gauean edo Errege-egunean. Jarraitu Glam bildumako argibideei —edizio mugatua—. Nortasuna eta estiloa borborka, Gabonetan liluragarri ibiltzeko. Prest?

**20 Sedukzio-ahalmena**
Azazkal-esmalte erakargarriak, oso femeninoak. Aroma paregabeak, oso maskulinoak. Beti *party*-giroan… Gabon-garaian, dena da distiratsu!

**24 Rock-and-rolla**
Indartsua eta femeninoa. Rocker-looka moda-modan dago denboraldi honetan ere, eta jai-gauetan izango du goren-unea.

**28 Zer edo zer oparitzeko**
Harrituta uzteko perfume eta kosmetikoak: *beauty* oparien behin betiko zerrenda.

Argitaratzailea: MERCADONA SA
Polígono Industrial Fuente del Jarro
C/ Ciudad de Liria, 5. 46988 Paterna / Valencia
Egilea: Ediciones ELCA
Inprimaketa: Jiménez Godoy
Lege-gordailua: TO-0789-2008

Aldizkari honetan agertzen diren produktuak Mercadonaren eskaintza estandarrekoak dira. Leku-arazoak direla eta, baliteke noizbait produkturen bat ez aurkitzea. Arren, galdetu gure langileei. Doako alea; debekatuta dago saltzea edo merkaturatzea. © Aldizkariaren titularra MERCADONA SA da. Eskubide guztiak erreserbatuta daude. Debekatuta dago aldizkaria baimenik gabe erabiltzea, osorik zein partzialki, eta/edo erreproduzitzea, bai eta markak eta/edo logotipoak erabiltzea ere.



# Edertasun-gida GABONAK

*Aurpegiko larruazala elikatzeko eta sakon garbitzeko formula eta testura berri batzuk, azala beti mimatzen dutenak, eta Tez Perfecta lerroa, aurpegi leun eta akats txikirik gabea izateko. Apain-mahaian eduki behar duzun guztia aurtengo Gabonetan eder-eder egoteko.*

# *Gakoa:* BIRSORTZEA

**1. Dragon's Blood Beauté Mediterránea,** azal-mota guztietarako aurpegiko emultsioa. Azala birsortzen eta elikatzen du, eta propietate antioxidatzaile ugari ditu. Estraktu antioxidatzaile eta birsortzaile indartsu batekin formulatuta dago, zeina Amazonaseko herensuge-zuhaitzaren izerdi gorritik ateratzen baita. Azal leuna, gaztea eta elastikoagoa izango duzu.






# *Bye Bye* ZIMURREI

Berritu zure edertasun-errituala **2. Zimur-kontrako krema zeramidadun eta azido hialuronikodunarekin.** Hidratazioa ematen du, zimurrak betetzen ditu, eta azala leuntzen du. Seguru gustatuko zaizula: testura arina du, emateko erraza da, eta aktibo-konbinazio perfektua du. Azido hialuronikoa da zahartzearen lehen zantzuak geldiarazteko osagai ezagunenetako bat: hidratazio- eta elastikotasun-kondizio onenetan eusten dio gure azalari. Zeramidek hesi-funtzioa berrezartzen dute, eta, hala, azala babesten: ez diete sartzen uzten kanpoko substantziei, eta azala zahartzea prebenitzen dute. Gainera, lisatu eta leundu egiten dute azala. Harrituta utziko zaitu botilak, berritzailea baita oso: 100 ml ditu, eta krema-emateko praktiko bat, behar duzun krema-kantitatea bakarrik har dezazun. **3. Helduen azalerako zimur-kontrakoak,** orain, tamaina handiagoa, aktibo berriak eta eguzkitik babesteko iragazki gehiago ditu. Krema horrekin, aurpegiko zaintza osoa izango duzu, adinaren zantzuei aurre egiteko: zimurrak, orbanak eta lehortasuna. Azalaren elastikotasuna handitzen du, birtrinkotu egiten du, eta tonua berdindu; gainera, hidratazioa, sendotasuna eta argitasuna ematen dizkio. **4. Adinaren kontrako Diamond Sisbela Cosmetics aurpegi-krema.** Denboraren iragateak azalean duen eraginari aurre egiten dio: sendotasuna, nutrizioa eta argia ematen dizkio azalari.




# *Eguzki-babesa* ZURE ALIATURIK ONENA

Babestu eguzkitik eta haren eraginetik urte guztian, ez udan bakarrik. **5. Lifting-efektuko SPF 30 aurpegi-kremak** fotozahartzetik babesten dizu aurpegia: sendotasuna galtzeari aurre egiten dio, eta elastikotasuna hobetzen. Eman azalari itxura gazteagoa, eta saihestu zimur berriak ateratzea.




## ITXURA BIKAINA *izateko garaia*

**Tez Perfecta** produktu-lerroa ezinbestekoa da Gabonetan aurpegi ona harro erakusteko. Irtenbide praktiko bat, ekitaldiz, familiako elkarretaratzez, bazkariz eta afariz jositako egun horietarako.

Makillajeak egun osoan txukun-txukun irautea nahi baduzu, **Tez Perfecta lineako aurreoinarriak** dituzu produkturik aproposenak. Izan ere, azala lisatu eta berdindu egiten dute, eta leun-leun uzten. Serumaren edo krema hidratatzailearen ondoren eta makillajearen aurretik ematen dira, makillajea erabat finkatuta gera dadin eta azalak itxura paregabea izan dezan edozein unetan.

**1. Aurpegiko aurreoinarri perfekzionatzailea.** Disimulatu aurpegiaren akats txiki guztiak, eta indartu makillajearen eragina. Makillaje gabe ere erabil dezakezu. Azal bikaina lortuko duzu!

**2. Poroak gutxitzeko aurreoinarria.** Azal koipetsua edo mistoa baduzu, horixe duzu zuretzako aurreoinarria. Izan ere, poroak txikiagotu egiten ditu, eta eremu distiratsuak mate bihurtzen. Eman ezazu, masaje leun bat eginez, makillajea jarri aurretik, eta distirarik ez duzu izango. Eman bereziki T eremuan: kopeta, sudurra eta kokotsa.

**3. Betazaletako aurreoinarria.** Aurpegia prestatzen badugu makillajea hobeto finkatzeko eta azala argitsuagoa egoteko, zergatik ez gauza bera egin betazalekin? Oso erraza da: aski duzu hatz-mamiarekin aurreoinarri-kantitate txiki bat ematea betazal garbiaren gainean, erabat xurgatzen duen arte. Ondoren, zure ohiko begi-itzala erabil dezakezu. Betazala argitzeaz eta begirada gazteagotzeaz gain, itzalak hobeto finkatzen dira, eta ez dira arrakalatzen.

**4. Flash hidratatzaileak.** Lanegun luze bat bukatu da, eta familiako elkarretaratze bat edo laneko afari bat duzu. Keinu sinple batekin, zure azala unean bertan tenkatuko da, ohiko kosmetikoak eman aurretik: hidratatzailea, aurreoinarria, makillajea. Nahikoa da azal garbian ematea, eta erabat xurgatu arte masaje bat egitea. Berehala igarriko duzu azala tenkatu eta argitu egiten zaizula.

**5. Distiren kontrako xaflak.** Eraman zeurekin edonora; seguru egun horietan etengabe dituzula konpromisoak. Xafla erabilgarri horiekin, edonoiz apaindu zaitezke, makillajea aldatu gabe. Kendu azaleko distirak keinu erraz batekin!

## *Negu-azala*
## JAI-AZALA

Hotzetik babesteko aholku praktikoak: denbora gutxiago erabili dutxatzeko edo bainatzeko; erabili ur epela, beroaren ordez; ez lehortu azala toallaren kontra igurtziz; ukitu leunak eman, toallak hezetasuna xurgatzeko; hidratatu gorputza egunero; bereziki eremu lehorrenetan, hala nola ukondoetan eta belaunetan; krema hidratatzailea lotara joan aurretik ematen baduzu, berriz, lagundu egingo diozu azalari leheneratzen gauean zehar.

**1. Gorputzeko olio hidratatzailea,** lurrin atsegin batekin perfumatua.

**2. Gorputzeko gurina.** Sakon elikatzen du azala. Urte-sasoi honetan, errazago deshidratatzen da, eta behar duen hidratazioa ematen dio gurinak. Inguratu gurinaren lurrin delikatuarekin, eta eman goxo-goxo gorputz guztian. Zure lasaitasun-unea da!





## FLASH ***begirada***

Poltsarik, begi-zulorik eta neke-zantzurik gabe. Prestatu begi-ingurua festa-egunetarako. Gizonentzako eta emakumeentzako **Exclusive Cosmetics begietako hidrogel-txaplatek** bi bertsio dituzte:

**1.** adinaren aurkakoa edo
**2.** birsortze intentsiboa, azido hialuronikoduna.

Zein hartuko duzu?






1




2



# *Biharamunean...*
# AZAL GARBI-GARBIA

Sekula ez joan lotara desmakillatu gabe, eta inoiz ez eman aurpegi-tratamendurik azala garbia ez baduzu. Hori da azal polit eta zaindu bat izateko sekretu handia. Gabonetan, normalean baino makillaje gehiago ematen duzu; garrantzitsua da ondoren arrasto guziak kentzea, azala garbi-garbi edukitzeko.

**Aurpegia garbitzeko Deliplus linea berriarekin**, erraza duzu.

**1. Begiak desmakillatzekoa.**
Gel-testura atseginaren bidez, emeki kentzen du betileetako eta betazaletako makillajea, eta garbitasun- eta ongizate-sentsazioa uzten du.

**2. Begietako eta ezpainetako desmakillatzekoa.**
Kalterik eragin gabe kentzen du betazaletako, betileetako eta ezpainetako makillaje guztia, bai eta trinkoenak eta urarekin kentzeko zailenak ere. Bere formula bifasikoari esker, oso eraginkorra da: makillajea kentzeko ez ezik, begi eta ezpainetako eremu delikatua leuntzeko eta hidratatzeko ere bai, eta ez du sentsazio koipetsurik uzten.

**3. Aurpegia garbitzeko esne hidratatzailea.**
Emeki garbitzen eta desmakillatzen du aurpegia, eta makillaje-arrastoak eta azalaren zikinkeriak kentzen ditu. Azala garbitzeaz eta leuntzeaz gain, hidratatu eta lasaitu egiten du, aktibo hidratatzaileak dituen formula aberastuari esker, zeina egokia baita azal-mota guztietarako. Eman aurpegian eta lepoan, mugimendu zirkularrak eginez, eta, ondoren, kendu kotoizko disko batekin.

**4. Aurpegi-toniko hidratatzailea.**
Haren formulak aktibo lasaigarri, hidratatzaile eta antioxidatzaileak ditu, eta freskura gehigarria emango diote zure aurpegiari. Erabili egunean bi aldiz garbiketa osatzeko, tonikoz bustitako kotoizko disko batekin. Ez erabili begi-inguruan. Aurpegia garbitzeko esne hidratatzailearen ondoren erabiltzen da, garbiketa-errituala osatzeko.




1 2 3 4

# ZURE OPARI PERFEKTUA




Honela osatuta dago DUO KITA: nezeserra, txantiloiak eta dekorazio itsasgarriak, azazkal-laka glitterduna (739 zk.) eta azazkal-laka beltza (740 zk.)

# Gabonak

# URREAREN *sukarra*

*Urre-kolorea izango da nagusi Gabonetan. Perfumeak eta kosmetikoak dotore-dotore izango dira, jaiak ospatzeko. Gehi itzazu desioen zerrendara!*




**1.** Nezeserra / **2.** Ezpainetako barra matea, 20 zk. / **3.** Pintzel argitzailea / **4.** Codizia *eau de parfum*-a / **5.** Gorputzeko hauts argitzailea, Glam bilduma / **6.** Gel-efektuko azazkal-esmaltea, Glam bilduma, 738 zk. glitter urrekara / **7.** Gold Progress zelula-birsortzaile kontzentratu intentsiboa, adinaren aurkakoa / **8.** Gorputzeko Gold Progress krema nutritibo birsortzailea / **9.** Hauts zeharrargiak / **10.** Eguneko Gold Progress aurpegi-krema.

# GLAM GABONAK

*Gabon-gaueko afarian, Eguberri-eguneko bazkarian, Urtezahar-gauean edo Errege-egunean. Jarraitu Glam bildumako argibideei –edizio mugatua–. Nortasuna eta estiloa borborka, Gabonetan liluragarri ibiltzeko. PREST?*










## GABON-GAUA

Egin klasiko berritu baten alde:
ezpain gorriak + begirada zirraragarria.



# Glamourra zure azazkaletan

Manikura dotore-dotorea Glam bildumako gel-efektuko esmalte gorri eta urrekararekin (eman bi geruza). Marraztu bereizketa-marra esmalte beltz batekin, laranjondo-ziri baten laguntzaz. Bukatzeko, jarri azazkaletarako dekorazio bat, eta erabili *Top coat* bat emaitza paregabea izateko.






5




6

7

8

1. Glam begi-paleta.
2. Iraupen luzeko Glam begi-arkatza, 08 zk. gau-urdina.
3. Iraupen luzeko Glam begi-arkatza, 10 zk. zuria.
4. Laka gogorra.
5. Maxi Volumen maskara beltza.
6. Gel-efektuko Glam azazkal-esmaltea, 661 zk. gorria.
7. Gel-efektuko Glam azazkal-esmaltea, 738 zk. urrekara.
8. *Top coat,* gel-efektukoa.
9. Glam baltsamo glitterduna, 01 zk. sparkling gorria.
10. Glam ezpainetako barra, 01 zk. gorria.






10

9



# Ezpain gorriak

Eman baltsamo glitterdun sparkling gorriaren ukitu bat ezpainen erdian, argitasuna eta ukitu sofistikatu bat emateko.







## MAISU-UKITUA

Makillajeak argia du, eta begirada naturalagoa da, lur-tonukoa, ezpain granateak nabarmendu daitezen. Gauean, apaindu egin ditzakezu, eta bilduma bereko baltsamo glitterdunaren purpurina-partikulekin indartu. Liluratuta utziko zaituzte emaitza distiratsuak eta gel-testurak!




# GABONAK

Festa-kutsuko makillajea egunerako: giltzarria? Argitasuna. Azalean, begietan, ezpainetan, azazkaletan, bai eta ilean ere.









1. Glam begi-paleta.
2. Iraupen luzeko Glam begi-itzala, 10 zk. bisoi-kolorea.
3. Ilerako osagarriak.
4. Maxi Volumen maskara beltza.
5. Glam ezpainetako barra, 02 zk. gorrimina.
6. Glam azazkaletarako dekorazioak.
7. Glam baltsamo glitterduna, 02 zk. zuri urrekara.
8. *Top coat*, gel-efektukoa.
9. Gel-efektuko Glam azazkal-esmaltea, 660 zk. granatea.
10. Ilerako diamante-distirako espraia.






## *Long Bob* bolumenarekin

Ile-mozketa honek ederki ematen du, eta egokia da, bereziki, ile fin eta ahulei bolumena emateko. Bolumen maximoa lortzeko, lehortu ilea burua beherantz jarrita, eta bota laka.




# URTE-BUKAERA

*Glitter* gehiago, begi ilunduak eta ile ederra. 3, 2, 1… Has dadila festa!





# Distira urrekarak

Ukitu metaliko eta itzal ilunduko begirada, aurtengo Gabonetarako konbinazio perfektua.

## GORRIA

**Ezpainetako gorriaren gakoa, ondoena datorkizun tonua aukeratzea. Glam bildumak bi ditu: belus-akaberako gorria edo granatea.** Zeuk erabaki! Makillaje berbera, ezpainetako eta azazkal-esmalte desberdinarekin.

5



6 7 8 9







10

1. Glam begi-paleta.
2. Iraupen luzeko Glam begi-itzala, 9 zk. urre platinoa.
3. Maxi Volumen maskara.
4. Glam ezpainetako barra, 02 zk. gorrimina.
5. Glam baltsamo glitterduna, 02 zk. zuri urrekara.
6. Gel-efektuko Glam azazkal-esmaltea, 661 zk. gorria.
7. Gel-efektuko Glam esmaltea, 738 zk. urrekara.
8. Gel-efektuko Glam azazkal-esmaltea, 660 zk. granatea.
9. *Top coat*, gel-efektukoa.
10. Laka estragogorra.



# SEDUKZIO-AHALMENA

*Azazkal-esmalte erakargarriak, oso femeninoak. Aroma paregabeak, oso maskulinoak. Beti party-giroan… Gabon-garaian, dena da distiratsu!*

*Gizonak*
**Gesto *eau de toilette*-a (1),** nortasun handiko gizon dotoreentzat.

*Emakumeak*
**Glam bildumako gel-efektuko azazkal-esmaltea, 660 zk. granatea. *Top coat*, gel-efektukoa (7).**

*Gizonak*

**Comotú Fuerza *eau de toilette*-a (2),** askatasuna maite duten gizon abenturazaleentzat.

*Emakumeak*

**Gel-efektuko azazkal-esmaltea, 661 zk. gorria (4) + azazkaletarako dekorazioak (5),** behatz guztietarako, nagirako izan ezik; behatz horretan, **Gel-efektuko esmalte glitterdun 738 zk. urrekara (6)** du. **Dena Glam bilduman.** Bukatzeko, ***Top coat,* gel-efektukoa (7).**



1




2







3




4




5




6




7



*Gizonak*
**Acción 9.60**
***sport water*-a**,
lurrin indartsu
eta bizia.




*Emakumeak*
**DUO kita** honela osatuta dago: **nezeserra, txantiloiak eta dekorazio itsasgarriak, azazkal-esmalte 739 zk. glitterduna eta esmalte 740 zk. beltza.**




9.60
PURE
WOMAN SPORT WATER
9.60
PURE
WOMAN SPORT WATER
emakume-lurrin berria



# ROCK-*and-rolla*

*Indartsua eta femeninoa. Rocker-looka moda-modan dago denboraldi honetan ere, eta jai-gauetan izango du goren-unea.*



## *URRE-KOLOREA ETA BELTZA*

Inoiz huts egiten ez duen nahasketa. Bitxi bat, katu-begiak, betile artifizialak eta ezpain mamitsuak. Lortu nahi duzu bi orrialde hauetako makillaje dramatikoa? Begi-itzal perladun 09 zk. kajal beltza begiaren barrualdea delineatzeko eta iraupen luzeko eyeliner-a kanporako. Rock&Volume betile-maskara, ezpainetako barra 19 zk. ardo-kolore matea eta azazkal-esmalte 740 zk. beltza, DUO kitekoa + Glam bildumako dekorazioak.



# *ROCK-IZAR BATEN PARE*

Jarri proban zure rocker-espiritua makillaje honekin. Begi-itzal perladun 03 zk. grisa, begi-itzal perladun 09 beixa, iraupen luzeko eyeliner-a begirada markatzeko, betile artifizialak eta Rock&Volume maskara. Ezpainetan, barra 20 zk. more matea, eta, azazkaletan, Glam bildumako gel-efektuko esmalte 660 zk. granatea.

**Badakizu betile artifizialak nola jartzen diren?**
*Lehendabizi, neurtu, zureekin alderatuz, eta moztu, behar izanez gero. Eman itsasgarria betile artifizialen lerroan, eta utzi 30 bat segundoan. Ondoren, jarri erdialdetik ertzetara. Prest daude makillatzeko; eman maskara, naturalagoak emateko. Ez ahaztu zure betileak Deliplus kizkurgailuarekin prestatu behar dituzula artifizialak jarri aurretik!*

# ROCKER-KITA

Hona hemen neguko look ausartenak lortzeko behar duzuna. Bazatoz rock-and-rolleatzera?

1





2




3




4






## Ezpain beteak

Kolore eta akabera estramatea, ezpain politak izateko.

5




## Dotorezia eta errebeldia

Granatearen, ardo-kolorearen edo gorri-morearen indarra. Aurtengo Gabonetan, jantzi zure azazkalak eta ezpainak paletako tonu dotore eta errebeldeenekin.

6




7



9

10



## Rock & Volume

Betile ikaragarriak, Rock&Volume maskara berriarekin. Bolumen maximoa, keinu bakar batekin.




8

**1. looka** (24. eta 25. orrialdeak):
Begi-itzal perladun 09 zk. beixa **(1)**, kajal beltza begiaren barrualdea delineatzeko **(2)** eta iraupen luzeko eyeliner-a kanporako **(3)**. Rock&Volume betile-maskara **(4)**, ezpainetako barra 19 zk. ardo-kolore matea **(5)** eta azazkal-esmalte 740 zk. beltza, DUO kitekoa + Glam bildumako dekorazioak **(6)**.

**2. looka** (26. orrialdea):
Begi-itzal perladun 03 zk. grisa **(7)**, begi-itzal perladun 09 beixa **(1)**, iraupen luzeko eyeliner-a begirada markatzeko **(3)**, betile artifizialak **(8)** eta Rock&Volume maskara **(4)**. Ezpainetan, barra 20 zk. more matea **(9)**, eta, azazkaletan, Glam bildumako gel-efektuko esmalte 660 zk. granatea **(10)**.


perfumería
mercadona
perfumería
mercadona
perfumería
mercadona

# ZER EDO ZER OPARITZEKO

*Harrituta uzteko perfume eta kosmetikoak.*
Beauty *oparien behin betiko zerrenda.*






**Eguzki-hautsak eta Maxi Volumen betile-maskara.**












**Nezeserrak.** Zenbait modelo eta tamaina aukeran.









**Maquílla-T.** Makillaje-kita.



**Maquílla-T.** Begietarako makillaje-kit berezia.




**Comotú Amor.** *Eau de toilette*-a, bainurako gela, *body milk*-a eta desodorantea.




**Rose Nude.** *Eau de parfum*-a, *body milk*-a, bainurako gela eta desodorantea.




**Elección.** *Eau de parfum*-a, gorputzeko lozioa, bainurako gela eta *eau de parfum* txikia.




**9.60 Woman.** *Sport water*-a desodorantea, *body milk*-a eta bainurako gela.




**24K Gold Progress.** Urre-ilusioa. Eguneko krema eta gaueko krema.




**Adinaren aurkakoa: kolagenoa + silanola.** Aurkitu berriro zure azalaren edertasuna. Aurpegiko eta begi-inguruetako krema.




**Luz de Flor.** *Eau de toilette fraîche*-a, bainurako gela, gorputzeko esnea eta desodorantea.




**Caprichos y Pasión eskuetako xaboia.**


perfumería
mercadona
perfumería
mercadona

# OPARITU ZER EDO ZER *gizonei*




**Cool Wood Bosque Místico.**
*Eau de toilette*-a, bainurako gela,
*after shave* baltsamoa eta desodorantea.




**Acción 9.60** *Sport water*-a, finkatzailea,
gel-xanpua eta desodorantea.




**Comotú Fuerza.** *Eau de toilette*-a, bainurako gela,
*after shave* baltsamoa eta desodorantea.




**Enciende *for him*.** *Eau de toilette*-a,
bainurako gela, gel finkatzailea eta desodorantea.







**Gesto.** *Eau de toilette*-a, *after shave*-a,
bainurako gela eta desodorantea.




**Goldenboy 4Square.** Gel-xanpua, *body spray*
desodorantea, *eau de toilette*-a eta *after shave* baltsamoa.

## OPARITU ZER EDO ZER *txikiei*




**Peanuts.** *Eau de toilette*-a + osagarria.






**Peppa Pig.** *Eau de toilette*-a eta osagarria.

## HAIN TXIKIAK EZ *direnentzat*



**Batman vs Superman.** Lurrina eta osagarria.




**Gemeliers.** *Eau de toilette for girls + body milk*-a.


COLOR
PERMANENTE
KOLAGENODUNA
Ile leunagoa eta distiratsuagoa
ILE-KOLORAZIOKO
GAMA BERRIA
deliplus
6|15
Marrón
Macadamia
1|
Negro
8|
Rubio
Claro
CON
COLÁGENO
COLOR
PERMANENTE


.en cien de for her
.en cien de for him
WESTIN
.en cien de for/for him/her
sentitu, probokatu, piztu...